

A large, stylized red apple shape is centered in the upper half of the page. Inside the apple, the text 'SAGARDOAREN LURRALDEA' is written in a bold, sans-serif font. 'SAGARDOAREN' is in a light green color, and 'LURRALDEA' is in white.

**SAGARDOAREN  
LURRALDEA**

el territorio de la sidra

**XII. Sagar Uzta 2012  
Prensa Dossier**

**Kontaktua:**

943 550 575  
info@sagardoarenlurraldea.com

[www.sagardoarenlurraldea.com](http://www.sagardoarenlurraldea.com)

## XII. Sagar Uzta, sagarraren jaia Astigarragan

**Sagar Uztak hamabigarren edizioa beteko du aurten, eta urteroko moduan, tolaletako lanen hasiera ospatuko du, azarora bitartean luzatuko den lana.**

Sagar Uzta jaiaren jarduera nagusiak **irailaren 27, 28, 29 eta 30ean** ospatuko dira jende guztiarentzako prestatutako eta sagarraren eta sagardoaren kulturaren oinarritutako jarduerekin.

**Aipamen berezia** merezi dute Sagar Uzta jaiaren parte-hartutako duten Astigarraga eta inguruko talde eta sektore ezbedinek: Sagarduneko bazkideak, tabernak, jatetxeak, enpresak, talde kulturalak, profesionalak, babesleak, bolondresak, etb...



Hamabigarren urtez jarraian, **2012 uztako sagarraren heldutasunaren egoeraren txostenaren** laburpena argitaratzen dugu.

Urtero bezala, Sagar Uzta jaia, sagarraren azokan, sagardo dastaketan eta **2012 uztako lehen muztioaren elaborazio prozesuan** oinarrituko da, tolaletan bertan muztioaren usadiozko elaborazio prozesua erakutsiko delarik: kirikoketa, pisoiekin sagarra jotzea, txalaparta eta ekoiztutako muztioaren dastaketa.

Aurtengoan Sagar Uztak honako **berrikuntzak** dakartza: Batetik, **“Santiagomendiko Sagardo Bidea”** ibilbide tematikoa aurkeztuko da eta honen bisita gidatua egingo da. Bestetik, Astigarragako tabernekin **sagarraren eratorriei egindako pintxo-potea** eskainiko dute.

Honekin batera, **V. Sagar Uzta Argazki Rallya** antolatu da. **Berrikuntza** bezala, aurten XII. Sagar Uzta jaiaren lau egunetan zehar antolatutako ekintza guztietako argazkiak aurkeztu ahal izango dira lehiaketara. Bestalde, iazko arrakastaren ostean, **Euskal Herriko sagarren kata gidatua** eta **Sagar tarta lehiaketa** ospatuko dira.

Bosgarren urtez **sagardogintzako herri kirolen lehiaketa** ospatuko da eta eskualdeko sagardogileek kizkiarekin sagarrak bildu, leran garraiatu eta ondoren txikitu egin beharko dituzte.

Gauza erakargarri asko, **Sagardoetxea**-rako bisitarekin osatu litezkeenak, Astigarragako gune pedagogiko, turistiko eta aisialdikora. Aurtengoan, gainera, sagardo muztioaren elaborazioa eta sagardotegirako bisitaldia proposatzen da.

Informazio gehiagorako: [www.sagardoarenluraldea.com](http://www.sagardoarenluraldea.com)

## Egitaraua



Aurreikusitako egitaraua honakoa da:

### V. Sagar Uzta Argazki Rally Digitala.

Sagar Uzta jaiaren lau egunetan zehar antolatutako ekintza guztietako argazkiak aurkeztu ahal izango dira lehiaketara. Oinarriak eta oharrak: [www.sagardoarenlurraldea.com/sagaruzta](http://www.sagardoarenlurraldea.com/sagaruzta)\*

### Osteguna, irailak 27

19:00-21:00 **PINTXO-POTEA** Astigarragako tabernetan. Sagarren eratorriein egindako pintxoak emango dira.

### Ostirala, irailak 28

12:00 **"SANTIAGOMENDIKO SAGARDO BIDEA"** ibilbide tematikoaren aurkezpena Sagardoetxean\*.

19:00 **EUSKAL HERRIKO SAGARREN KATA GIDATUA** Astigarragako Roxario Jatetxean\*.

### Larunbata, irailak 29

09:00-13:00 **"SANTIAGOMENDIKO SAGARDO BIDEA"** ibilbide tematikoaren bisita gidatua\*.

### Igande, irailak 30

**SAGARRAREN JAIA** Foru enparantzan.

**Sagar Tarta Lehiaketa.** Tartak 12:00ak aurretik Foru enparantzan entregatu behar dira. Oinarriak eta oharrak: [www.sagardoarenlurraldea.com/sagaruzta](http://www.sagardoarenlurraldea.com/sagaruzta)\*

10:30-13:30 Haurrentzako tailerrak eta jolasak.

10:30-14:00 **Sagarraren azoka:** Erakusketak, erakustaldiak, dastaketa eta salmenta.

11:00 **2012 uztako lehen muztioaren elaborazioa.** Sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea.

12:30 Sagar dantza eta Kirikoketa.

13:00 Txalaparta eta ekoiztutako muztioaren dastaketa.

13:45 Sagar Tarta Lehiaketako sari banaketa.

14:30 Herri bazkaria Gure Izarra elkartean.

17:30 Sagardogintzan oinarritutako herri kirolak Foru enparantzan Alorrenea, Lizeaga, Petritegi eta Rezola sagardotegien parte-hartzearekin.

\* **Izen-emateak:** 943 550 575 / [info@sagardoarenlurraldea.com](mailto:info@sagardoarenlurraldea.com)

## Apirileko hotzak eta abuztuko beroak tokiaren arabera uza irregularra eragin du

**Habian da 2012ko uza eta urtero bezala, modu berezian aurkezten zaigu. Aurten sagarra biltzeko ohiko datetara bueltatzen gara eta tolaerak urriko lehendabiziko astetik aurrera hasiko dira lanean. Apirileko hotzak eragindako bakantze naturalak eta abuztuko beroak sagarraren tamaina egokia ahalbidetu dute, baina lekuko mikroklimaren arabera, errendimendua ezberdina izan da.**

**Hamabigarren** urtez jarraian, irailaren hasieran Gipuzkoako sagasti ezberdinetan kontrol bat egin da sagarren egoera ezagutu ahal izateko.

Honetarako, Gipuzkoako zenbait sagasti jarraitu ditugu, Beterri aldekoak gehienbat. 14 barietate kontrolatu dira: Aritza, Errezila, Gezamina, Goikoetxe, Manttoni, Moko, Mozolua, Patzolua, Txalaka, Udare Marroi, Urdin, Urtebi Haundi, Urtebi Txiki eta Verde Agria.



Orokorrean, **2012ko iraileko lehenengo hamabostaldian** sagastietan azaldu diren zenbait puntu bereizi ditzakegu:

- Azukre maila begiratuta, **sagarraren heldutasunaren egoera** batz best 11'9 °Brix-koa da.
- Almidoiaren erregresioa 2'6ko indizean dago, iaz baino bi puntu gutxiagotan.
- Barietatez barietate eta sagastiz sagasti begiratz gero, ezberdintasun nabarmenak ikus daitezke.
- Tratamenturik egin ez dituzten sagastietan, sagar portzentai garrantzitsu bat arjoarengatik kaltetua izan da. Gainera, aurten Sagar Harrek bi erasoaldi eragin dituzte belaunaldi bakoitzeko tenperatura altueei esker.
- Abuztuan zehar izan diren eguzki kolpeak kalte handiak sortu ditu fruituen portzentai handi batean, Gipuzkoako barnealdean gehien bat.
- **Lehortek** eta **beroak**, batetik **sagarraren erorketa** garrantzitsua eragin dute, eta bestetik, **sagarraren tamaina eta pisua gutxitu** dute.

## “Santiagomendiko Sagardo Bidea”, Sagardoetxea Museoko laugarren gunea

**Aurten “Santiagomendiko Sagardo Bidea” izeneko Sagardoetxeako laugarren gunea martxan jarriko da. Ibilbide tematiko honetan zehar, sagardoaren kultura, Santiagomendiko baserrien eta Astigarragako historia harrigarria eta Santiago Bidearen Gipuzkoan zeharko punturik adierazgarrienetarikoa ezagutzeko aukera izango da azalpen panel, multimediazko elementu eta joko interaktiboen bidez.**

**Irailaren 28an** Sagardoetxeak “Santiagomendiko Sagardo Bidea” ibilbide tematikoa **aurkeztuko** du 12:00etan museoan eta **irailaren 29an** ibilbidearen **bisita gidatua** egingo da goizeko 09:00etatik aurrera.



Orain arte egindako bidea, ordea, luzea izan da. Proiektua duela hiru habian jarri zen **Josu Tellabide** eta **Asier Aguirresarobe etnografoek**

eta **Lourdes Odrizola historialariak** gauzaturiko ikerketa etnografiko eta historikoarekin. Lan honek, Santiagomendiko bizilagunek Astigarragako historian eta sagarraren laborantzak eta sagardoaren ekoizpenak Astigarragako jarduera ekonomikoan izan zuen garrantzia ezagutzeko aukera eman zuen. Informazio hau aintzakotzat hartuta, mundu mailan ibilbide esperientzialen diseinuan eta garapenean liderra den Austriako **Pronatour** enpresak “Santiagomendiko Sagardo Bidea”-ren kontzepzioa eta diseinua burutu zuen.

“Santiagomendiko Sagardo bidea” **Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoko laugarren gunea** izango da eta **euskal sagardoaren kulturako erakargarri berri bat** izango da.

Ibilbide tematiko honen helburuak Santiagomendiko landa inguru paregabe eta bakarraren mantenua, gure ondare historikoaren babesa eta sagarraren eta sagardoaren kulturaren zabalpena dira.



Helburu hauekin, **azalpen panel, audio, joku eta asmakizun ezberdinez osaturiko zortzi geldialditako ibilbidea** diseinatu da bisitariek sagardoaren kultura modu dibertigarri eta parte-hartzailean ezagutu ahal izateko.

## Pintxo-potea Astigarragako tabernetan

**Bertako gastronomia bultzatzeko eta Sagar Uzta jaiari bertako sagarrekin eginiko sukaldaritzako eskeintza gehitzeko helburuarekin, Astigarragako hostalariak sagarrekin eta sagarren eratorrieekin egindako pintxo-potea eskainiko diete bisitariei.**



Hirugarren urtez, Astigarragako hostalariak Sagar Uzta jaiaren ospakizunarekin bat egingo dute bertako sagar eta sagarren eratorrietan oinarrituriko sukaldaritzako eskaintza bereziarekin.

Modu honetan, Ikatza, Bukoi, The Robin, Sagartxo, Irati, Kupela, Txotx, Ibai-Lur, Txiki, Ekaitz, Pastoriza, Kizki eta Zipotza taberneak **irailaren 27an pintxo-potea** eskainiko dute 19:00etatik-21:00etara bitartean, eta sagarraren eta sagarraren eratorrietan oinarritutako pintxo originalak dastatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Pintxo-pote berezi honetaz gain, taberna hauetan **aurreko urteetako Sagar Uzta Argazki Rallyetako argazki bilduma irabazleak** ikusgai izango dira.

## Euskal Herriko sagarren kata gidatua

**Irailaren 28an 19:00etan bertako sagar barietate ezberdinen kata gidatua izango da Astigarragako Roxario Jatetxean.**



Euskal Herriko (Gipuzkoako eta Iparraldeko) sagar barietateen ezaugarri organoleptikoak ezagutzeko helburuz, Euskal Herriko sagar barietate ezberdinen kata gidatua egingo da Astigarragako Roxario jatetxean.

## Sagar muztioaren elaborazioa eta sagardotegia

**Sagarrak biltzeko eta sagardoa egiten hasteko garaian gaude eta sagardogintzaren kulturaren barneratzeko aukera luzatzen dizuegu museorako bisita, sagardoaren elaborazioa eta sagardotegi bateko bisitaldiarekin.**



Sagardoetxeak sagarra eta sagardoaren historia eta errealitatera gerturatzeko hiru gune dauzka: sagastia, sagarraren kultura modu dinamiko eta pedagogikoan gozatzeko aukera ematen duena; museo-gunea, sagarra eta sagardoaren iragana, oraina eta geroa ezagutzeko lekua; dastaketa gunea, sagardoa txotx-eko ohituran eta Sagardoetxeak aukeraturiko beste produktu batzuk dastatzeko aukera ematen duen lekua.

### Sagardo muztioaren elaborazioa

Bisitariak sagardoaren elaborazio prozesuan parte hartzeko aukera izango dute, modu tradizionalari jarraituz: kizkiarekin sagarrak lurretik bildu, pisoiekin zanpatu, prentsatu eta ekoizturiko muztioa dastatu.

### Sagardotegian bazkaria

Eraberean, otordu berezi batez gozatu nahi duenak, sagardotegiko ohiko menua dastatzeko aukera izango du: bakailao tortila, bakailao frijitua piper berdeekin, txuleta eta gazta irasagar eta intxaurrekin.

Sagar Uzta jaiaren testuingurua, Sagardoetxea bisitatzeko eta sagardogintzaren kulturara gerturatzeko aukera interesgarria izan daiteke, sagar muztioaren elaborazioan parte hartuaz.

### Bisita orduak

Asteartetik larunbatera 11:30-13:30 eta 16:00-19:30.

Igande eta jai-egunetan 11:00-13:30.

**Irailaren 30an Igande irekita 11:00-13:30etara.**

## Antolatzailea: Sagardun Partzuergoa

**Sagardun Partzuergoa 2003. urtean sortu zen entitate publiko-pribatua da. Gaur egun Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa kudeatzen du, Sagardo Berriaren Eguna eta Sagar Uzta ekitaldiak antolatzen ditu, sagardoaren kultura sustatzen du esperientzia turistikoa ezberdinen bitartez eta "Sagardoaren Lurraldea" marka kudeatzen du.**

### Sagardun Partzuergoaren osaketa:

#### Administrazioa:

Astigarragako Udala

#### Talde Kulturalak:

- Astigar E.O.E.
- Goldea Herri Kirol Batzordea
- Gure Izarra
- Mundarro Kirol Elkarte
- Norberto Almandoz Musika Eskola
- Xagu Xar
- Zipotza Kultur Elkarte

#### Sagardotegiak:



## Kolaboratzaileak:

Erbitegi Etxeberri Kirikoketa Taldea, Astigarte, Roxario eta Ibai-Lur jatetxeak, Ikatza, Bukoi, The Robin, Sagartxo, Irati, Kupela, Txotx, Txiki, Ekaitz eta Pastoriza tabernak, Mecanizados Laubide, Marisol Yaben, Pastain Argazkiak, Josu Osa, Behemendi eta bolondres lana egiten duten guztiak.

## Babesleak:



**SAGARDOAREN  
LURRALDEA**  
 el territorio de la sidra

---

# SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

Kale Nagusia 48  
20115 Astigarraga - Gipuzkoa  
t: 00 34 943 550 575  
f: 00 34 943 331 311

info@sagardoarenlurraldea.com  
www.sagardoarenlurraldea.com  
www.facebook.com/SagardoarenLurraldea  
twitter: @sagarlur\_es | @sagarlur\_eu

---

SAGARDOAREN  
LURRALDEA

txotx.info

 Sagar doetxea

Sagardobenda

 SagardoPedia

SAGARDUN  
SAGARDOAREN BIZITZA ASTIGARRAGA

EUSKADI

TURISMO  
GIPUZKOA  
HAIN TOKIA, HAIN HANDIA  
TAN POKUA, TAN GRANDE